

**Eskola eta immigrazio  
berria: zer aldatzen  
ari da hezkuntza  
sisteman?**

**Amelia Barquín (HUHEZI,  
Mondragon Unibertsitatea)**



# 1. Kultura eta hizkuntzaren esparrua (1)



1. Gaztelera ez dakiten ikasleen kopurua igo da:

- %59 hegoamerikarrak: batez ere Kolonbia, Ekuador eta Argentinatik etorriak
- %41 beste jatorri batzuetakoak: %20 Afrikatik etorriak, %17,4 Europako beste lurralde batzuetatik, %3,2 Asiatik

Ondorioa: "bitarteko" hizkuntzaren falta



# 1. Kultura eta hizkuntzaren esparrua (2)



2. Hainbat guraso ez dira ondo konpontzen gaztelaniaz: horrek ondorioak dauzka komunikazioan eta parte-hartzean
3. Autoktonoen eta etorkinen "aukeraketak" desberdinak dira ereduari dagokienean:
  - Etorkinen seme-alaben artean %45,4 A ereduan dago eskolatuta, %27,8 B ereduan eta %26,8 D ereduan (EAE 07-08)
  - Ikasle guztien artean, %20,7 A ereduan dago, %23,2 B ereduan eta %56,1 D ereduan(Hiru urteko ikasleetatik %68,8 hasi ziren D ereduan eta %6,5 A ereduan)



# 1. Kultura eta hizkuntzaren esparrua (3)



A eredia: zergatik?

- Euskararen normalkuntza prozesua ez da oraindik erabat burutu. Euskara ikasteko beharrik?
- Etorkin gehienak euskararen dentsitate tasa txikiko eremuetan: %38,8 Bilbo Handian erroldatuta, %18,4 Arabako Lautadan eta %15 Donostialdean (Xabier Aierdi)
- EAeko autoktono gehienek ere ez dakite euskara eta ez dira ikasten ari
- Familiek jasotzen duten informazioa eskasa da: ez dago zerbitzu formalik familien hizkuntzetan



# 1. Kultura eta hizkuntzaren esparrua (4)

## 4. Kulturak dibertsifikatu dira gelan.

Autoritatearekin harremana, pertsona eta taldearen arteko harremana, gizonen eta emakumeen arteko harremana, lanaren kontzepzioa, denboraren kontzepzioa, gatazkak bideratzeko moduak...

(Ikasleen jatorrizko gizarteak eta kultura erreferentziak "ezezagunagoak" dira irakasleentzat)

## 6. Ikasleen eskola ohiturak bestelakoak dira:

Ikasleen mugikortasun fisikoa, hitzaren erabilpena, materialen erabilpen egokia, jabetzaren kudeaketa...



# 1. Kultura eta hizkuntzaren esparrua (5)



- Gurasoen eskola ohiturak ere desberdinak izan daitezke:  
Etxeko lanak, irakaslearekin biltzea eta hitz egitea, eskolan parte hartzea...  
(Eta guraso askok daukaten denbora eza: jardunaldi luzeak, seme-alaba txikiak zaintzeko beharra...)
- 4. Gatazka berriak sortzen ari dira ikastetxeetan:  
Neska musulman batzuen zapia, jantokian elikadura-debeku erlijiosoak, generoei rolekin lotutako jokaera batzuk...



# 1. Kultura eta hizkuntzaren esparrua (6)


Ondorioz, aniztasun "kulturala"  
areagotu da eskolan

Baina badaude beste faktore batzuk,  
eskolatzearen egoerarekin zerikusia  
dutenak...



## 2. Eskolatze egoerak (1)

1. Ume gehiago heltzen dira ikasturtea hasita dagoela
2. Ikasle berantiarren kopurua igo da
3. Ume batzuk ez dira inoiz eskolatu edo modu prekarioan eskolatu dira
4. Ikasleak egon diren eskolen eta hemengo eskolen artean desberdintasunak daude
5. Etorkinen seme-alaben mugikortasuna handiagoa da autoktonoen seme-alabena baino





## 2. Eskolatze egoerak (2)



Ondorioak:

- Taldeen heterogeneotasuna
- Ikastetxeen antolakuntzan eragina
- "Kultura" hitzaren gehiegizko erabilpena

Baina badaude oraindik beste zirkunstantzia garrantzitsu batzuk...



# 3. Ikasleen egoerak

## (1)



1. Zenbait familiaren egoera ekonomiko eta soziala
2. Familien egoera juridikoa
3. Autoktonoen jarrerak etorkinekiko;  
hainbat mesfidantza, beldur eta kezka:
  - "integrazioaren" inguruan
  - delinkuentziaren inguruan
  - euskararekiko eta euskal kulturarekiko jarreraren inguruan
  - hezkuntza kalitatearen inguruan...



# 3. Ikasleen egoerak (2)

4. Xenofobia baino gehiago, "aporofobia"  
(Adela Cortina)
5. Eskola batzuetan "kontzentrazioak"  
gertatzen ari dira
6. Etorrinen seme-alabak "atzerritarrak"  
dira hainbat autoktonorentzat
7. Gerta daiteke etorri berriek dolu fasea  
jasaten egotea ("akulturazio estresa")



Adela Cortina (1997): *Ciudadanos del Mundo, Hacia Una Teoría de La Ciudadanía*, Madrid: Alianza Editorial

"A pesar del empeño por asegurar que los grandes problemas sociales son el racismo y la xenofobia, sigue siendo cierto que el mayor de ellos es la aporofobia, el odio al pobre, al débil, al menesteroso. No son los extranjeros sin más, los diferentes (que somos todos), quienes despiertan animadversión, sino los débiles, los pobres".



# 3. Ikasleen egoerak (3)



## Ondorioak:

- Ume ugari desabantaila egoeran hasten dira eskolan
- Ume etorri berri guztiek ez dituzte konpartitzen zirkunstantzia guztiak edo ez gradu berean
- Ikasle "zailak"?
  - Nahi eta bilatzen ez diren ikasleak dira eskola askotan
  - Alderdi horiei guztiei egoki erantzuteak ahalegin handia eta ordu asko eskatzen ditu
  - Baliabideak? Prestakuntzarik?



# 4. Beste ikuspegi bat: ikasleena (1)



## Eskola inklusiboaren ikuspegia?

- Helburua ez da ume guztiak "ume estandarren" trokelera eramatea
- Ume bakoitzak bere ezaugarriak ditu; ume bakoitza, den bezala, ondo hartua izango da eskolan
- Eskolak errekonozitzen ditu, estimulatu eta erabiltzen dituzten ume bakoitzaren dohainak eta gaitasunak umeak ahalik eta hoberen gara ditzan
- Eskola horrek komunitatearen zentzua sustatzen du, parte izatearen eta onartua izatearen zentzua

Utopia bat da, baina hainbat ikastetxe eta irakasle urrats sendoak ematen ari dira utopiarako bidean



# 4. Beste ikuspegi bat: ikasleena (2)



Booth eta Ainscowren *Index for inclusion* (2000)

- Helburua: ikastetxeak aztertzea ikasleek zeintzuk oztopo aurkitzen dituzten ikastetxean behar bezala ikasteko eta parte hartzeko, ikasleek haien dohainak eta gaitasunak ahalik eta hoberen garatzeko.
- Ikuspegi aldaketa erabatekoa.



# 4. Beste ikuspegi bat: ikasleena (3)

## Ondorioak:

- Goian zerrendatutako alderdiak dira bertako hezkuntza sisteman ikasle berriek aurkitu ahal dituzten oztopoak
- Hezkuntza sistemak moduak bilatu beharko ditu oztopo horiei aurre egiteko eta konponbideak aurkitzeko
- Gero eta kontzientzia handiagoa dago: profil berriko ikasleen aurrean beharrezkoa da egokitzea, eguneratzea eta neurri berriekin erantzutea





# 5. Aukerak eta erronkak (1)



**Aniztasuna aberastasuna da:** "Desberdintasunek ikaskuntzarako aukera bikainak eskaintzen dituzte. Desberdintasunak baliabide dohaineko, ugari eta berriztagarriak dira" (Barth 1990).

- **Gakoa:** aniztasunaren kudeaketa egokia. Irakasleak aniztasuna altxor bat dela sinisten du eta transmititzen du, eta aniztasun hori eskoletan esplizituki erabiltzen du.
- **Ikasle etorri berriak ez dira "ezer gutxi ez dakiten" ikasleak.** Iragana daukate eta hainbat ezaguera dauzkate. Horiek estimatu eta erabiltzeko aukerak bilatu behar dira.




# 5. Aukerak eta erronkak (2)



- **Etorrinen eskolatzeak aldaketak eskatzen ditu:**  
Antolaketan, estrategietan, metodologian, hausnarketetan... Berrikuntza bultzatuko du
- **Immigrazioak oraindik dauzkagun erronkak agerian uzten ditu** (gizartean eta eskolan):
  - Aniztasunaren trataeran
  - Euskararen normalkuntzan
  - Gizartearen kohesiorako baloreetan eta gatazken trataeran
  - Talde batzuen eskusioan
  - Kulturen errespetuan...



# 5. Aukerak eta erronkak (3)



- Hainbat balore lantzeko aukera ere ematen du:
  - Norberak (berdin zein den bere jatorria) besteak errespetatzea eta estimatzea
  - laguntza eskatzea / eskaintzea / ematea / jasotzea
  - elkartrukatzea
  - entzuten ikastea
  - anbiguotasuna (ondo ulertzen ez duguna) toleratzea
  - gatazkak bideratzea...  
(Gurasoekin, irakasleekin eta ikasleekin)



# 5. Aukerak eta erronkak (4)



- Aukera ematen die ikasle guztiei (berdin non jaio diren) konpetentziak garatzeko mundu anitz batean bizi ahal izateko:
  - Aintzat hartzea kultura desberdinen planteamenduak, balioak, mundu-ikuskerak eta harremanak izateko modua
  - Errespetua / estimua beste kulturekiko eta beste kulturetako pertsonetara
  - Komunikazio gaitasunak (baita kulturarteko komunikaziorako ere)
  - Gatazkak bideratzeko gaitasunak...



# 5. Aukerak eta erronkak (5)

Ikasle etorri berrien eskolatzeak planteatzen digu, azken finean, zein gizarte mota izan nahi dugun etorkizunean eta zer egiteko prest gauden hori lortzeko.

Irakasleen lana eta inplikazioa ezinbestekoa da bide horretan.

